BESTELAKO XEDAPENAK

LEHENDAKARITZA

1196

EBAZPENA, 2014ko otsailaren 20koa, Bakegintza eta Bizikidetzarako idazkari nagusiarena, Elkarrekin Bonu Programa arautzeko Dekretu Proiektua jendaurrean jartzeko dena.

Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak Elkarrekin Bonu Programa arautzeko Dekretu Proiektua egitea sustatu du.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 8.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, herritarren eskubide eta bidezko interesei eragiten dieten xedapen orokorrek entzunaldiaren izapidea igaro beharko dute. Era berean, xedapenen izaerak hala eskatzen badu, jendaurrean jarri beharko dira.

Horregatik guztiagatik, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Elkarrekin Bonu Programa arautzeko Dekretu Proiektua jendaurrean jartzea, hogei egun balioduneko aldian, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Bigarrena.– Aurreko paragrafoan ezarritakoaren ondorioetarako, eta nahi duenak alegazioak aurkezteko, dekretu-proiektuaren edukia eskuragarri egongo da Lehendakaritzako Araubide Juridikoaren Zuzendaritzan (Nafarroa kalea 2, Vitoria-Gasteiz) eta www.euskadi.net-en Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoaren iragarki taulan.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko otsailaren 20a.

Bakegintza eta Bizikidetzarako idazkari nagusia,
JUAN ANTONIO FERNÁNDEZ ERDOCIA.